

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**DONOSTIAKO UDALA**

**Hirigintza Sostengagarria**

*Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren errebisioaren behin betiko onarpena.*

Udalak, 2021eko martxoaren 25an eginiko bilkuran honako erabaki zuen:

Indarrean dagoen Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia behin betikoz onartu zen Udalbatzan 2014ko otsailaren 27an.

2018ko uztailaren 19an ospatutako Udalbatzan, behin betikoz onartzea erabaki zen «Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketa», katalogoan 47 elementu berriak sartuz. Aipatuko espedienteak jendaurrean egon zen epean, alegazio ezberdinak aurkeztu ziren, bertan, katalogoan eraikin eta elementu ezberdin asko sartzeko eskaerak zeuden, haien babesa eskatuz.

Horren arabera, 2018ko abuztuaren 30an Hirigintza Sostengarrirako, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetarako Zinegotzi Eskuordedunak luzatutako ebazpenean, Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren errebisioa idazteko lanak Luis Sesé Madrazoi esleitzea erabaki zuen.

Lan horren aurreko azterketan oinarrituz, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko abenduaren 18.an, honako akordio hau hartu zuen:

«1. Erabaki honekin batera doan 2018ko azaroaren 5.eko zerrrendan dauden elementuen gaineko eraispen lizentziak etenzea.

Kontutan eduki behar da C graduako eraikinetan indarrean dagoen H.O.E.B.P.B. aurreikusitako berrikuntza lanak eta esku hartze berdinak onartzen direla.»

H.O.E.B.P.B. ra elementu berriak sartzeko eta haren errebisioa izapidetzeko, 2020ko maiatzako datarekin dokumentu bat aurkeztu da. Aurkeztutako dokumentuak berrikuspen metodologia azaltzen du, erabilitako baliabideak eta hautatzeko irizpideak. Katalogoa babes-graduaren arabera antolatuta dago, eta horien barruan bere kokapenaren alfabeto-ordenaren arabera. Elementu hauek babestu behar dira: Hiribilduak, etxe-uharteetako bizitegi-eraikinak, eraikin erlijiosoak, espazio irekietako eraikuntzak, baserriak, gotorlekuak eta bestelako elementu arkeologikoak eta atariak.

Zirriborro-dokumentu horretan oinarrituz, 2019ko urriaren 4an Ingurumen - Ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasi zen, eragindako Administrazio Publikoari eta pertsona interesatuei egin beharreko kontsultak egin. Espediente zenbakia EAES-273 da.

Aipatutako prozedura 2020ko urtarrilaren 17ko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren ebazpenaren bidez amaitzen da, bertan, ez duela eragin garrantzitsurik izango ingurumenean eta, beraz, ez dela ingurumen - ebaluazio estrategiko arruntik egin behar esaten da. Ebazpen hau 2020ko

**AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

**Urbanismo Sostenible**

*Aprobación definitiva de la revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Construido de San Sebastián.*

El Ayuntamiento, en sesión Plenaria celebrada el día 25 de marzo de 2021, adoptó el siguiente acuerdo:

El Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián vigente es el aprobado definitivamente por acuerdo del Ayuntamiento Pleno de 27 de febrero de 2014.

Mediante sesión plenaria celebrada el 19 de julio de 2018, se acordó aprobar definitivamente la «Modificación del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de Donostia/San Sebastián», incluyendo en el catálogo 47 nuevos elementos. En el período de información pública de dicho documento, se presentaron diversas alegaciones en las que se solicitaba inclusión de un número importante de edificios y otros elementos, dentro del catálogo del Plan para su correspondiente protección.

En vista de ello, con fecha 30 de agosto de 2018, el Concejal Delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de la Ciudad resuelve adjudicar a Luis Sesé Madrazo los trabajos de redacción de la «Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de Donostia/San Sebastián».

Sobre la base del análisis previo de ese trabajo, la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2018, adoptó el siguiente acuerdo:

«1. Suspender las licencias de derribo integral sobre los elementos contenidos en el listado fechado el 5 de noviembre de 2018 y que se adjunta al presente acuerdo.

Señalar que se permiten las reformas o intervenciones iguales a las determinadas en el P.E.P.P.U.C. vigente para los edificios integrados en el grado C de protección.»

Con el objetivo de incorporar nuevos elementos al P.E.P.P.U.C. y tramitar la revisión del mismo, se presenta un documento fechado en mayo de 2020. El documento presentado explica la metodología de revisión, los recursos utilizados y los criterios de selección. El catálogo está organizado por grados de protección y dentro de ellos por orden alfabético de su emplazamiento. Los elementos a proteger son: Villas, edificios residenciales en manzanas, edificios religiosos, construcciones en espacios abiertos, caseríos, fortificaciones y otros elementos arqueológicos y portales.

Sobre la base del documento-borrador citado, con fecha 4 de octubre de 2019 se inició el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, iniciando la fase de consultas a las Administraciones Públicas afectadas y a las personas afectadas. El expediente es el EAES-273.

Dicho procedimiento culmina con la Resolución de 17 de enero de 2020 del Director de Administración Ambiental del Gobierno Vasco, por la que se formula el informe ambiental estratégico, determinando que no se prevé que vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y por tanto,

otsailaren 13.ako *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratzen da.

Azkenik, hasierako onespenerako aurkeztu den dokumentua Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Berrikustea deitutakoa, dagoeneko katalogatuta dauden elementuen multzoa biltzen duena –kasu batzuetan, babes-maila aldatzea planteatuz– eta katalogoan sartzeko proposatutako elementu berriak.

Dokumentuaren ebaluazio sozio-linguistikoa egin da, 2019ko urriaren 24.an Euskerako Zerbitzuak idatzitako txostena espediente sartuz. Bestalde, Euskarako Zerbitzuak 2020ko urtarrilaren 9ko txostena idazten du, bertan, arauzko formak emanez.

Generoaren araberako ebaluazioa ere egin da. Berdintasun Atalaren 2020ko urtarrilaren 31.an sinatutako egiaztatzen txostena dago.

Tokiko Gobernu batzordeak, 2020ko otsailaren 4.an, honako akordio hau onartu zuen:

«1. Hasiera batean onartzea Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Berrikuspena.

Behin betiko onespenerako, kontuan hartuko dira espedienteko txostenetan ezarritako baldintzak.

2. Bi hilabetetan jartzea ikusgai dokumentua, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari hari buruzko txostena eskatzea ere.

3. Gehienez ere urtebeteko epean, elementu bakoitzerako baimentzen diren eraikuntza-eskuhartzeen aurkako onarpen, baimen eta lizentzia guztiak bertan behera uztea, haien babes-maila orokorraren eta berrikuspen honetako dagokion fitxa partikularrean jasotako babes-erregimen espezifiko eta xehatuaren arabera, erabaki honekin batera doan eranskinaren arabera.»

Jendaurrean egon den epean, honako alegazio hauek aurkeztu dira:

1. Okendotegi 153ko bizilagunak.
2. Agustín Michelena Pelaez.
3. Mayr Alcaine Zapata.
4. Carolina Busca Cuesta.
5. José Manuel López Asensio.
6. Iñigo Lizari.
7. Mikel Iriondo eta besteak.
8. Carlos Valverde.
9. Antxon Garicano Arrillaga.
10. Jose Maria Abad Urruzola.
11. Iñigo Echeverria.
12. San Bartolomé Muinoa, S.A.
13. D.ª Inés Soroeta Berme 2002, S.L. ordezkartzan.
14. Berme 2007 S.L.
15. Gipuzkoako Merkatal Federazioa.
16. Sociedad Anónima Deportes y Espectáculos (SADE).
17. Jose Francisco de Assas Yagues.
18. Compañía Servicios Sociales San Ignacio SA.
19. Iñaki Begiristain Mitxelena.
20. Gipuzkoako Foru Aldundia.
21. Francisco Jose de Assas Yagues.
22. CPES Ortzadar BHIP (Villa Matilde).
23. Fernando Cid Monreal.

no debe de someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria. Esta resolución se publica en el *Boletín Oficial del País Vasco* de fecha 13 de febrero de 2020.

Finalmente, el documento que se presenta para su aprobación inicial es el denominado Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián, que abarca el conjunto de elementos ya catalogados –planteando en algún caso la modificación de su grado de protección– y los nuevos elementos propuestos para su incorporación al catálogo.

Se ha procedido a realizar la evaluación socio-lingüística del documento, constando informe del Servicio de Euskara fechado el 24 de octubre de 2019. Por otra parte, el Servicio de Euskara aporta informe de fecha 9 de enero de 2020 sobre la toponimia normativa.

También se ha realizado la evaluación de impacto de género. Consta informe de verificación fechado el 31 de enero de 2020.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 4 de febrero de 2020, adoptó el siguiente acuerdo:

«1.º Aprobar inicialmente la Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián.

De cara a la aprobación definitiva se tendrán en cuenta las condiciones impuestas en los informes obrantes en el expediente.

2.º Someter dicho documento a información pública por plazo de dos meses y a informe del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

3.º Suspender por el plazo máximo de un año el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias que contravengan las intervenciones constructivas autorizables para cada elemento en función de su grado de protección general y del régimen de protección específico y pormenorizado reflejado en la ficha particular correspondiente de la presente revisión, de acuerdo con el anexo que acompaña al presente acuerdo.»

Durante el plazo de exposición pública se han presentado las siguientes alegaciones.

1. Vecinos Okendotegi 153.
2. Agustín Michelena Pelaez.
3. Mayr Alcaine Zapata.
4. Carolina Busca Cuesta.
5. José Manuel López Asensio.
6. Iñigo Lizari.
7. Mikel Iriondo y otros.
8. Carlos Valverde.
9. Antxon Garicano Arrillaga.
10. Jose Maria Abad Urruzola.
11. Iñigo Echeverria.
12. San Bartolomé Muinoa, S.A.
13. D.ª Inés Soroeta en representación de Berme 2002, S.L.
14. Berme 2007 S.L.
15. Federación Mercantil de Gipuzkoa.
16. Sociedad Anónima Deportes y Espectáculos (SADE).
17. Jose Francisco de Assas Yagues.
18. Compañía Servicios Sociales San Ignacio SA.
19. Iñaki Begiristain Mitxelena.
20. Gipuzkoako Foru Aldundia.
21. Francisco Jose de Assas Yagues.
22. CPES Ortzadar BHIP (Villa Matilde).
23. Fernando Cid Monreal.

24. Maria Etxeburua Beldarrain.
25. Arantxa Lopez Simon eta 15 gehiago.
26. Juan Martin Garcia.
27. Asociación Ancora.
28. Ainhoa Ibarreche Solano.
29. Construcciones Lantegui SA.
30. Maria Rosa Asuero Alonso.
31. Construcciones Lantegui.
32. Diputación Foral Gipuzkoa.
33. Icomos-España.
34. Juan Carlos Echeverria Domínguez eta besteak.

Dokumentua idatzi duen taldeak sinatu (2021.eko otsaileko dokumentua) eta udal arkitektoak (2021.eko martxoaren 2.an) berretsi eta abalaturako alegazio txostenarekin bat, bidezkoa da alegazioak erabat ezestea, aipatu txostenean aipatzen diren baiepen partzialak izan ezik. Txosten horiek erabaki honen arrazoitzat hartuko dira eta erabaki honen banakako jakinarazpenari erantsiko zaizkio.

Espedientean behin betiko onarpenerako beharrezkoak diren txosten sektorial guztiak daude.

2020ko apirilaren 29an Hirigintza eta Lurzoruaren 2006/2 Legearen 97. artikulak eskatutako Kultura Saileko txostena lortu da.

Horiek horrela, behin betiko onets dadin Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia babesteko Plan Bereziaren Berrikuspenean dokumentua aurkezten da, 2021eko otsaileko datarekin.

Dokumentuari buruz honako txosten hauek idatzi dira:

- Arkitektura: 2021.eko martxoaren 2.an.
- Juridikoa: 2021.eko marxoaren 1.an.

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 97. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta behin betiko onarpena ematea dagokio.

Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikulua agintzenduena aintzakotzat hartu eta Donostiako Udalbatzak

#### ERABAKI DU

1.º Erabaki honen azalpen aldean aipatutako txostenak aintzat hartuz, ezetsi egiten dira aurkeztutako alegazio guztiak, era partzialean onartzen direnak izan ezik.

Erabaki hau banan-banan jakinaraziko zaie alegazioak aurkeztu dituzten pertsona guztiei, eta kasuan kasuko erabakia arrazoitzeko erabilitako txostenak erantsiko dira.

2. Behin betikoz onartzea Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Berrikuspenean.

3. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikulua agindutakoa aintzakotzat hartu eta planaren hirigintza-arauak argitaratzea.

Ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89.3 artikulua erekin bat, behin betiko onartutako plana Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistrora bidali da, han gorde dezaten.

Fitxa partikularrak Udalaren web orrian kontsulta daitezke.

Erabaki hau behin betikoa da eta buru eman dio administrazioko bideari. Konforme egon ezean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa sar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia

24. Maria Etxeburua Beldarrain.
25. Arantxa Lopez Simon y 15 más.
26. Juan Martin Garcia.
27. Asociación Ancora.
28. Ainhoa Ibarreche Solano.
29. Construcciones Lantegui SA.
30. Maria Rosa Asuero Alonso.
31. Construcciones Lantegui.
32. Diputación Foral Gipuzkoa.
33. Icomos-España
34. Juan Carlos Echeverria Domínguez y otros.

De acuerdo con el informe de alegaciones firmado por el equipo redactor del documento (documento de febrero de 2021), y confirmado y avalado por el arquitecto municipal en fecha de 2 de marzo de 2021, procede la desestimación total de las alegaciones, salvo las estimaciones parciales referidas en el citado informe. Dichos informes servirán de motivación al presente acuerdo y se adjuntarán a la notificación individual del presente acuerdo.

Constan en el expediente todos los informes sectoriales necesarios para su aprobación definitiva.

Con fecha 29 de abril de 2020 se ha recabado el informe del Departamento de Cultura previsto en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

Fruto de todo lo anteriormente expuesto, se presenta para su aprobación definitiva el documento de Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico de San Sebastián, fechado en febrero de 2021.

El documento ha sido objeto de los siguientes informes:

- Arquitectura: 2 de marzo de 2021.
- Jurídico: 1 de marzo de 2021.

Procede en consecuencia, de conformidad con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, su aprobación definitiva.

Visto cuanto antecede y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de este Ayuntamiento

#### ACUERDA

1.º De acuerdo con los informes citados en la parte expositiva de este acuerdo, se desestiman en su integridad las alegaciones presentadas, salvo las que se estiman parcialmente.

Se notificará individualmente a cada alegante el presente acuerdo, adjuntando como motivación los informes correspondientes.

2.º Aprobar definitivamente la Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián.

3.º De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del Plan.

Según dispone el artículo 89.3 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, el Plan objeto de aprobación definitiva ha sido remitido para su depósito al Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

La fichas particulares se podrán consultar en la web municipal.

El precedente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Adminis-

Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau azkeneko aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabete joan baino lehen.

Horiek horrela hona hemen argitara jarrita planaren hirigintza arauak.

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Plan Bereziaren xedea.

1. 2010eko ekainaren 25eko ebazpen bidez behin betiko onartutako eta indarrean dagoen Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren garapenean sustatuta, Plan Berezi honek xede bikoitza du: batetik, hiri honetako hirigintza ondare eraikiaren parte izateagatik babestu behar diren hiriko eraikinak eta beste eraikuntza eta urbanizazio elementu batzuk identifikatzea; eta, bestetik, elementu horien babes erregimena zehaztea.

Aditzera emandako xede horiez gain, a.21 Antzinako zabalguneko bizitegi tipologiako eraikinen tratamendu estetikoaren baldintza erregulatzaileak zehaztu beharko dira, baita zenbait elementu arkeologikoren babesaren baldintza erregulatzaileak ere, Lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritako moduan.

2. Hiriko Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoa da Plan Berezi honetan ezarritakoaren arabera babestu beharreko elementuen zerrenda.

Edonola ere, zerrenda hori osatu edo berregokitu egin beharko da Plan Berezi honetan ezarritako moduan eta irismenarekin.

3. Babestutako elementu berriak sartzea, 2014an onartu zenetik, Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren 2018ko aldaketatik aurrera, eta berrikuspen honetan gehitutakoak sartzea.

#### 2. artikulua. Lege esparrua.

Plan Berezi hau honako xedapen hauek, batik bat, osatutako legezko esparruan landu da:

– Aipatutako 2010eko Plan Orokorra.

– Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea).

– Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea, 2019ko maiatzaren 9koa (6/2019 Legea).

– Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legea, 1985eko ekainaren 25ekoa (16/1985 Legea).

#### 3. artikulua. Eraginpean dagoen lurralde esparrua.

1. Donostiako udalerrri osoak osatzen du Plan Berezi honen eragin esparrua.

2. «Kaia CE.02» eta «Parte Zaharra CE.03» eremuei dago kienez, iritziko zaio ondare eta kultura intereseko eraikin eta elementu eraikien identifikazioa bat datorrela Eusko Jaurlaritzak Parte Zaharra eta kaia monumentu kategoriako kultur ondasun izendatzeko egindako deklarazioan ezarritakoarekin, eta babes erregimena ere haren arabera dutela, Monumentu Multzoa Babesteko Plan Bereziaren behin betiko onepenean ezartzen den eran.

#### 4. artikulua. Indarraldia, aldaketa eta berraztertzea.

1. Behin betiko onartu eta argitaratu ostean jarriko da indarrean plan berezi hau, arlo horretan aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Indarraldi mugagabea izango du, katalogatzeko eta babesteko beste irizpide batzuk hartzearen ondorioz edo indarrean dagoen plangintza berraztertzearen ondorioz berraztertzen denean izan ezik betiere Plan Bereziarena justifikatzen duten baldintzetan.

trativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su última publicación.

A continuación se procede a publicar las Normas Urbanísticas del Plan.

## CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1. Objeto del Plan Especial.

1. Promovido en desarrollo del vigente Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián (aprobado definitivamente mediante resolución de 25 de junio de 2010), este Plan Especial tiene el doble fin de, por un lado, identificar los edificios y otros elementos constructivos y de urbanización de esta ciudad que deben ser objeto de protección por formar parte del patrimonio urbanístico construido de la misma, y, por otro, determinar el régimen de protección de esos elementos.

Además, a los fines anteriores se añaden los de determinar las previsiones de intervención en las materias reguladas en las Disposiciones Adicionales de este documento (tratamiento estético de las edificaciones de tipología «a.21 Residencial de Ensanche Antiguo»; tratamiento de las cubiertas de otras tipologías edificatorias).

2. La relación de los elementos a proteger de conformidad con lo establecido en este Plan Especial constituye el Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido de esta ciudad.

En todo caso, dicha relación se entenderá complementada o reajustada en los términos y con el alcance establecidos en este Plan Especial.

3. La inclusión de nuevos elementos protegidos desde su aprobación en 2014, a partir de la modificación del PEPPUC de 2018 y de los que se añaden en esta revisión.

#### Artículo 2. Marco legal.

Este Plan Especial se elabora en el marco legal conformado por, básicamente, las siguientes disposiciones:

– El citado Plan General de 2010.

– La Ley de Suelo y Urbanismo, de 30 de junio de 2006 (Ley 2/2006).

– La Ley de Patrimonio Cultural Vasco, de 9 de mayo de 2019 (Ley 6/2019).

– La Ley del Patrimonio Histórico Español, de 25 de junio de 1985 (Ley 16/1985).

#### Artículo 3. Ámbito territorial afectado.

1. La totalidad del término municipal de San Sebastián conforma el ámbito afectado por este Plan Especial.

2. En lo referente a los ámbitos «CE.02 Puerto» y «CE.03 Parte Vieja», la identificación de los edificios y elementos constructivos de interés patrimonial-cultural existentes en esos ámbitos, así como la determinación de su régimen de protección se entenderá conforme a lo establecido por el Gobierno Vasco en la declaración como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental de la Parte Vieja y el Muelle, en los términos que resulten de la Aprobación Definitiva del correspondiente Plan Especial de Protección del Conjunto Monumental.

#### Artículo 4. Vigencia, modificación y revisión.

1. Este Plan Especial entrará en vigor tras su aprobación definitiva y su publicación, de conformidad con lo establecido en las disposiciones de aplicación en la materia.

2. Su vigencia será indefinida en tanto no sea revisado como consecuencia bien de la adopción de nuevos criterios de catalogación y protección, bien de la revisión del planeamiento general vigente, en condiciones que justifiquen la del Plan Especial.

3. Katalogoa eguneratzearen kalterik gabe, eta ordenantza hauen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Plan Berezia zein arlo horretan aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritako irizpideen arabera egingo dira plan berezi hau aldatzeko edo berraztertze lanak.

4. Plan Berezia behin betiko onartu eta hamar urte igaro ondoren, Udalak betetze maila, indarraldia eta gaurkotasuna eza gutzeko dokumentua landuko du, Plan Berezia berraztertzearen egokitasuna edo ez ebaluatzearen.

5. *artikulu*a. *Plan Bereziaren dokumentuak eta horren zehaztapenen lerruna.*

1. Plan Berezi hau honako dokumentu hauek osatu dute:

\* «1. Memoria» dokumentua.

\* «2. Hirigintza arauak» dokumentua.

– «2.1. Ordenantza orokorrak».

– «2.2. Ordenantza bereziak».

\* «3. Katalogoa» dokumentua.

\* «4. Planoak» dokumentua.

\* «5. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa».

2. Plan Berezia osatzen duten dokumentu guztiek konfiguratzen dute planaren beraren arauzko edukia. Edonola ere:

– «2. Hirigintza arauak» eta «3. Katalogoa» dokumentuek dute, berariaz, hirigintza jarduera erregulatzeko eta arautzeko izaera hirigintza ondare eraikiaren babesari dagokionez, eta, horrenbestez, babes hori haien zehaztapenetara egokitu behar da nahitaez.

– «1. Memoria» dokumentuak izaera batik bat adierazlea, erreferentziala edo justifikatzailea du, eta, hala, dokumentu honen edukian aurrez adierazitako dokumentuekin kontraesanik badago, haiek nagusituko dira. Haatik, horiek interpretatzeko iturri egokia da.

– «4. Planoak» dokumentuak, berriz, izaera informatzailea du, elementu katalogatuek udalerrian duten kokaleku fisikoaren berri ematen baitu, eta, elementu horien kokalekua finkatzean errorearen bat dago, ez du eraginik elementurako ezarritako babes erregimenean.

3. Plan Berezi honen zehaztapenek Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren garapen plangintzan ezarritako zehaztapenen lerrun bera dute.

Ondoren aditzera ematen diren salbuespenen kalterik gabe, Plan Bereziaren zehaztapenak Plan Berezia bera aldatuta soilik aldatu edo osatu ahal izango dira. Salbuespen horiek honako suposizio hauekin, zehazki, lotuta daude:

– Babeserako A mailan barnean hartzen diren elementuen zerrenda berregokitzea edo osatzea arlo horretan eskumena duen Administrazioak hartutako erabakien emaitzakoa.

– «CE.02 Kaia» eta «CE.03 Parte Zaharra» esparruetan dauden elementu eraiki babestuen zerrenda Ordenantza hauen aurreko 3.2 artikuluan azaldutako irizpideen arabera zehaztea edo osatzea.

– Plan Berezi honen proposamenak berregokitzea edo osatzea plan berezien, xehetasun azterlanen, Katalogoaren aldaketan eta Planaren aurreikuspenen arabera sustatutako ordenantzen emaitzakoa eta horien eraginpean dauden arloetan eragina dutenak.

Salbuespen horien eraginpean dauden suposizioetan izan ezik, haren zehaztapenak ezin izango dira beste plan batzuen esparruan aldatu.

3. Sin perjuicio de la actualización del Catálogo, de conformidad con lo establecido en el artículo 9 de estas Ordenanzas, la modificación o la revisión de este plan especial se adecuará a los criterios establecidos tanto en él como en las disposiciones de aplicación en la materia.

4. Transcurridos diez años desde la aprobación definitiva del Plan Especial el Ayuntamiento elaborará un documento para conocer su grado de cumplimiento, su vigencia y actualidad, con el fin de evaluar la conveniencia o no de proceder a su revisión.

*Artículo 5. Documentos del Plan Especial y rango de sus determinaciones.*

1. Este Plan Especial está integrado por los siguientes documentos:

\* Documento «1. Memoria».

\* Documento «2. Normas Urbanísticas».

– «2.1. Ordenanzas Generales».

– «2.2. Ordenanzas Particulares».

\* Documento «3. Catálogo».

\* Documento «4. Planos».

\* Documento «5. Estudio de Viabilidad Económico-Financiera».

2. El contenido normativo del Plan Especial queda configurado por la totalidad de los documentos que lo componen. En todo caso:

– Los documentos «2. Normas Urbanísticas» y «3. Catálogo» son los que tienen, de manera específica, carácter normativo y de regulación de la actividad urbanística en relación con la protección del patrimonio urbanístico construido y, por tanto, ésta se deberá ajustar en todo caso de forma obligada a sus determinaciones.

– El documento «1. Memoria» posee un carácter fundamentalmente indicativo, referencial o justificativo, por lo que, en caso de contradicción en su contenido con los citados anteriormente, serán aquéllos los que prevalezcan. Constituye sin embargo una fuente de interpretación cierta de los mismos.

– El documento «4. Planos» tiene un carácter informativo respecto a la ubicación física de los elementos catalogados en el término, sin que un eventual error en la ubicación del alguno de ellos tenga repercusión respecto a la aplicabilidad del régimen de protección establecido para el mismo.

3. Las determinaciones de este Plan Especial tienen el rango propio de las establecidas en el planeamiento de desarrollo del Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián.

Sin perjuicio de las salvedades que se exponen a continuación, su modificación o complemento, solamente podrá materializarse a través de la modificación de este mismo Plan Especial. Dichas salvedades están asociadas, en concreto, a los siguientes supuestos:

– Reajuste o complementación de la relación de elementos integrados en el grado A de protección, resultante de acuerdos adoptados por la Administración competente en la materia.

– Determinación o complementación de la relación de los elementos construidos protegidos situados en los ámbitos «CE.02 Puerto» y «CE.03 Parte Vieja», de conformidad con los criterios expuestos en el anterior artículo «3.2» de estas Ordenanzas.

– Reajuste o complementación de las propuestas de este Plan Especial, resultantes de planes especiales, estudios de detalle, modificaciones del Catálogo y ordenanzas promovidos de conformidad con sus previsiones, y con incidencia en las materias afectadas por las mismas.

Salvo en los supuestos afectados por esas excepciones, sus determinaciones no podrán ser modificadas en el marco de otros planes.

## II. KAPITULUA

### HIRIGINTZA ONDARE ERAIKIAREN KATALOGOA. HARTATIK ERATORRITAKO KONFIGURAZIOA ETA ERAGIN NAGUSIAK

*6. artikulua. Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoaren izaera eta edukia.*

1. Plan Berezi honetan identifikatutako Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoa da Donostiako udalerrriaren barruan eza gutzen diren eta bertan ezarritako irizpideen arabera babestu behar diren eraikinen eta beste eraikuntza eta urbanizazio elementu batzuen zerrenda.

Edonola ere, «CE.02 Kaia» eta «CE.03 Parte Zaharra» esparruei dagokienez, katalogo hori osatu egingo da ordenantza hauen aurreko 3.2 artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

2. Katalogo hori hiriaren Katalogo orokorraren zati bat da, indarrean dagoen 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 76. artikuluan ezarritako moduan.

3. Eraikin, elementu edo espazio berean hainbat izaeratako balio babesgarriak batera agertzeko aukerak (eraikia, naturala, arkeologikoa, eta abar) eta, hortaz, katalogo orokor horretan hainbat ikuspegitatik barnean hartzeko aukerak ez du finkatuko plan berezi honetan elementu, eraikin edo espazio horretarako ezarritako erregimena.

Kasu horietan, ikuspegi horietatik guztietatik ezarritako babes neurriak gainjarriko dira eta/edo osatuko dira, eta horiek guztiak izango dira aplikatzekoak.

Elementu horretarako Plan Berezi honetan ezarritako babes erregimenaren eta beste ikuspegi horietatik finkatutako babes erregimenaren artean, bateraezintasunen bat edo kontraesanez bat gertatzen bada, Udalak zentzuzko erabakia hartuko du auzi horretan. Edonola ere, elementu edo espazio hori ikuspegi horietatik babesteko plana edo proiektua onartu aurretik eta/edo une berean hartu beharko du erabaki hori.

*7. artikulua. Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoaren sistematizazioa.*

Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoan banako elementuak barnean hartzen dira batik bat, baina izaera kolektiboko beste elementu batzuekin osatzen dira (multzoak, lorategiak, hiri altzariak, eta abar).

Elementu horien identifikazioa udalerriko kale izendegi ofizialaren araberrako helbidearen erreferentziaren bidez egingo da. Elementu horietako bakoitza Plan Berezi honen planoetan izango duen kokalekuak, eta bakoitzari dagokion ordenantza berezian barnean hartzen den haren argazkiak, baliagarriak izango dira elementuaren identifikazioa berresteko edo elementua interpretatzeko, kontraesanik edo zalantzarik badago.

Nolanahi ere, Plan Berezi honen F mailan barnean hartzen diren elementuak irizpide horien arabera identifikatzen eta tratatzen dira, haien ezaugarriek eta baldintzatzaileek aukera ematen duten kasuetan. Gainerako kasuetan, modu orokorrean identifikatuko dira, edo haien ezaugarrien arabera.

*8. artikulua. Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoan barnean hartzen diren elementuen sailkapena.*

1. Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoan barnean hartzen diren elementuak honako sei mailatan sailkatzen dira:

– A maila. Euskal Kultura Ondareari buruzko 2019ko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearekin bat etorrita babes bereziko edo babes ertaineko kultura ondasun deklaraturakoak biltzen ditu, edo horri buruz abiarazitako txostena dutenak. Eraikinak zein multzoak edo bestelako elementuak hartzen ditu barnean.

## CAPÍTULO II

### CATÁLOGO DEL PATRIMONIO URBANÍSTICO CONSTRUIDO. CONFIGURACIÓN Y AFECCIONES GENERALES DERIVADAS DEL MISMO

*Artículo 6. Carácter y contenido del Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido.*

1. El Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido identificado en este Plan Especial conforma la relación de los edificios y otros elementos constructivos y de urbanización existentes y conocidos dentro del término municipal de San Sebastián, que deben ser objeto de protección de conformidad con los criterios establecidos en él.

En todo caso, ese Catálogo se entenderá complementado en lo referente a los ámbitos «CE.02 Puerto» y «CE.03 Parte Vieja», de conformidad con los criterios expuestos en el anterior artículo «3.2» de estas Ordenanzas.

2. Dicho Catálogo constituye una parte del Catálogo general de la ciudad, considerado en los términos establecidos en el artículo 76 de la vigente Ley de Suelo y Urbanismo, de 30 de junio de 2006.

3. La eventual coexistencia de valores protegibles de distinto carácter (construido, natural, arqueológico, etc.) en un mismo edificio, elemento o espacio y, por lo tanto, su inclusión en el citado Catálogo General desde distintas perspectivas de protección, no prejuzgará el régimen establecido para él en este Plan Especial.

En esos supuestos, se superpondrán y/o complementarán las medidas de protección establecidas desde todas esas perspectivas, y serán de aplicación todas ellas.

De darse algún tipo de incompatibilidad o contradicción entre el régimen de protección establecido en este Plan Especial para dicho elemento, y el fijado desde esas otras perspectivas, el Ayuntamiento resolverá de manera razonada el correspondiente conflicto, con anterioridad y/o simultáneamente a la aprobación del plan o proyecto de protección del elemento o espacio desde esas otras perspectivas, siempre que sea posible.

*Artículo 7. Sistematización del Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido.*

El catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido incluye, básicamente, elementos individuales, que se complementan con otros de carácter colectivo (conjuntos, jardines, mobiliario urbano...).

La identificación de los referidos elementos se hace mediante la referencia a su dirección conforme al callejero municipal oficial. La ubicación de cada elemento en los planos de este Plan Especial, y la fotografía del mismo incluida, en su caso, en la correspondiente Ordenanza Particular, sirven para confirmar la identificación del elemento por su dirección o para interpretarla en caso de contradicción o duda.

En todo caso, los elementos incluidos en el grado F de este Plan Especial se identifican y tratan de conformidad con esos criterios tan sólo en los supuestos en los que sus características y condicionantes lo permiten. En los demás casos se identifican de manera genérica o acorde a sus características.

*Artículo 8. Clasificación de los elementos incluidos en el Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido.*

1. Los elementos incluidos en el Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido se integran en los seis grados siguientes:

– Grado A. Comprende los elementos declarados Bienes Culturales de Protección Especial o Media conforme a la Ley 6/2019 de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, o que cuentan con expediente incoado al respecto; incluye tanto edificaciones como conjuntos u otro tipo de elementos.

– B maila. Maila honetan sartzen dira beren banakako balioa, jatorrizko proiektioari edo geroko doikuntzei lotutakoa, aitor-tuta duten elementu eraikiak, ordenantza orokor hauetan eta dagozkien geroko ordenantza berezietan jasotako baldintzetan. Babestu beharreko zatiak dituzte kanpoko inguratzailean eta barruan. Maila honetan sartzen dira, hala badagokio, haiei lotutako beste elementu mota batzuk osagarri moduan dituzten eraikuntzak. Babesak eragin ona izan dezake elementu horien zati jakin batzuetan.

– C maila. Maila honetan sartzen dira beren banakako balioa, jatorrizko proiektioari edo geroko doikuntzei lotutakoa, aitor-tuta duten elementu eraikiak, ordenantza orokor hauetan eta dagozkien geroko ordenantza berezietan jasotako baldintzetan. Babestu beharreko zatiak dituzte kanpoko inguratzailean. Maila honetan sartzen dira, hala badagokio, haiei lotutako beste elementu mota batzuek osagarri moduan dituzten eraikuntzak. Babesak eragin ona izan dezake elementu horien zati jakin batzuetan.

– D maila. Maila honetan sartzen dira jatorrizko eta/edo eguneko kanpoko arkitektura irudian kokapenaren hiri inguruarekin lotutako balio babesgarriak aitor-tuta dituzten elementu eraikiak, ordenantza orokor hauetan eta dagozkien ordenantza berezietan ezarritako baldintzetan eta bertan xedatutako irismenarekin. Maila honetan sartzen dira, hala badagokio, haiei lotutako beste elementu mota batzuk osagarri moduan dituzten eraikuntzak, beren konfigurazioagatik edo egungo irudi orokorragatik (jatorrizko konfigurazioari zein babestea merezi duten geroko esku hartzeen ondoriozkoari dagokionagatik) eta aipatutako inguruan duen sinbologiagatik babestutakoak. Babesak eragin ona izan dezake elementu horien zati jakin batzuetan.

– E maila. Maila honetan sartzen dira plan berezi honek babesten dituen eta A mailan barnean hartzen ez diren multzoak, balio kolektiboak dituztenak, Ordenantza Orokor hauetan zein dagozkien ordenantza berezietan azaldutako moduan eta irismenarekin.

– F maila. Maila honetan sartzen dira elementu edo espazio eraiki edo urbanizatuak, edo horien barnean hartzen diren atalak, haien babesa justifikatzen duten balioak dituztenak, eta aurreko A mailan barnean hartzen ez direnak. Halakotzat joko dira: lorategiak, parkeak, plazak, espazio urbanizatuak, zubiak, pilotalekuak, hiri altzariak, eta abar, balio horiek dituztenak.

Eraikuntzak badituzte, horiek ez dute protagonismo berezirik haren konfigurazioan, edo eraginpean dauden espazioen (parkeen,...) osagarriak dira; izatez, espazio horiek beraiek dira babesaren erreferente nagusiak.

2. Maila horietan guztietan sartzen diren eraikinetarako, elementuetarako, multzoetarako, eta abar, Plan Berezi honetan ezarritako babes erregimena osatu edo berregokitu egingo da Ordenantza hauen 5.3. artikuluan aipatzen ziren erabaki, plan, xehetasun azterlan eta abarren arabera.

#### 9. artikulua. Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoa eguneratzea.

1. Kultura Ondasun Kalifikatu izendatzeko, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen arabera, babes bereziko edo babes ertaineko kultura ondasun izendatzeko hasten diren espedienteen eraginpean dauden elementu guztiak automatikoki txertatuko dira Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogora, jada txertatuta ez bazauden, eta A mailari atxikiko zaizkio. Une horretatik aurrera, elementu horiek espediente horretan ezarritako erregimenaren mende egongo dira.

Espediente horiek elementua babes bereziko edo babes ertaineko kultur ondasun izendatzearekin amaitzen badira, elementu hori A mailari atxikitako elementu katalogatu gisa mantenduko da.

– Grado B. Comprende elementos contruidos a los que se reconoce su valor individual, asociado bien a su proyección original bien a posteriores reajustes, en los términos expuestos tanto en estas Ordenanzas Generales como en las correspondientes Ordenanzas Particulares. Cuentan con partes que deben ser protegidas tanto en su envolvente exterior como en su interior. Incluye edificaciones, complementadas, en su caso, con otro tipo de elementos asociados a las mismas. La protección puede incidir bien en la totalidad bien en determinadas partes de esos elementos.

– Grado C. Comprende elementos contruidos a los que se reconoce su valor individual, asociado bien a su proyección original, bien a posteriores reajustes, en los términos expuestos tanto en estas Ordenanzas Generales como en las correspondientes Ordenanzas Particulares. Cuentan con partes que deben ser protegidas en su envolvente exterior. Incluye edificaciones, complementadas, en su caso, con otro tipo de elementos asociados a las mismas. La protección puede incidir bien en la totalidad bien en determinadas partes de esos elementos.

– Grado D. Comprende elementos contruidos en cuya imagen arquitectónica exterior original y/o actual se reconocen valores protegibles en relación con el entorno urbano en el que están emplazados, en los términos y con el alcance establecidos tanto en estas Ordenanzas Generales como en las correspondientes Ordenanzas Particulares. Incluye edificaciones, complementadas, en su caso, con otro tipo de elementos asociados a las mismas, que se protegen en lo referente a su configuración o imagen general actual (correspondiente bien con su configuración originaria, bien con la resultante de intervenciones posteriores merecedoras de protección) y a su simbología en el citado entorno. La protección puede incidir bien en la totalidad bien en determinadas partes de esos elementos.

– Grado E. Comprende los conjuntos protegidos por este Plan Especial y no incluidos en el anterior grado A, a los que se reconocen valores colectivos, en los términos y con el alcance establecidos tanto en estas Ordenanzas Generales como en las correspondientes Ordenanzas Particulares.

– Grado F. Comprende elementos o espacios contruidos o urbanizados, o partes integradas en los mismos, que cuentan con valores que justifican su protección, y no están incluidos en el anterior grado A. Se consideran como tales: los jardines, los parques, las plazas, los espacios urbanizados, los puentes, los frontones, el mobiliario urbano, etc. que cuenten con dichos valores.

En el supuesto de contar con edificaciones, éstas o bien no tienen un particular protagonismo en su configuración, o bien son complementarias de los espacios (parques...) afectados, siendo esos espacios los referentes principales de la protección.

2. El régimen de protección establecido en este Plan Especial para edificaciones, elementos conjuntos, etc. integrados en todos esos grados se entenderá complementado o reajustado en los términos resultantes de los acuerdos, planes, estudios de detalle etc. a los que se hace referencia en el artículo «5.3» de estas Ordenanzas.

#### Artículo 9. Actualización del Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido.

1. Se considerarán automáticamente incorporados al Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido, si no lo estaban ya, y adscritos al grado A, todos los elementos que resulten afectados por expedientes que se incoen bien para su declaración como Bien Cultural de Protección Especial o de Protección Media conforme a la Ley del Patrimonio Cultural Vasco; a partir de ese momento esos elementos quedarán sujetos al régimen establecido en dicho expediente.

La culminación de los referidos expedientes con la efectiva declaración del elemento como Bien Cultural de Protección Especial o Media, conllevará el mantenimiento del mismo como elemento catalogado adscrito al grado A.

Espedienteak hala izendatu gabe amaitzen badira, Udalak elementua katalogatzeari edo ez katalogatzeari dagokionez zein Plan Berezi hau aldatzeari edo ez aldatzeri dagokionez, komenigarriak iruditzen zaizkion erabakiekin osatuko da espedienteak.

2. Katalogoan beste elementu batzuk ezabatu edo txertatu nahi badira, honela jardun beharko da:

Plan Berezi hau berrikusi edo aldatzeko espedienteak tramitatu beharko da, Udalaren eskariz nahiz partikularrek eskatuta, planaren irismena dela eta hala egin beharra dagoenean. Tramitazio hori Udalak sustatuko du.

Espedienteak aldaketaren motibazioaz gain honako alderdi hauek ere hartu beharko ditu barnean: txertatu edo ezabatu beharreko elementuaren identifikazioa, egin nahi den ekintzaren justifikazioa eta, babes erregimenaren aldaketan edo txertaketan kasuan, elementua dagokion babes mailarako atxikipena, eta dagokion ordenantza berezia. Udaleko Ondarearen Aholku Kontseiluaren txostenaren mende geratuko da.

2010eko Plan Orokorreko «Kaia.CE.02» eta «Parte Zaharra.CE.03» eremuetan kokatutako eraikin eta elementuak direnez baina A maila ez dutenez, Parte Zaharreko Monumentu Multzoa Babesteko Plan Bereziaren xedatutakoari jarraituko zaio, haren behin betiko onespenean agertzen den eran.

Elementu individual edo multzo unitario bati B, C, D, E eta F maila atxiki bazaio edo maila horietako bat atxiki badakioke, elementu edo multzo hori katalogoan banaka sartzeko edo baztertzeko, espediente bat izapidetu eta onetsi ahal izango da, administrazioak berak edo partikularrek eskatuta, toki araubideko araudiak udal ordenantzetarako ezartzen duen prozedurari jarraituz. Betekizun hauek izango dira:

– Udalak edo partikularrek elementu edo multzo bat katalogoan sartzeko/baztertzeko espedienteak ireki nahi badute, ondare balorazioa txosten-azterlan bat izan beharko da, ondare arkitektonikoaren arloan esperientzia egiaztatua duen teknikari gaitu batek sinatua.

– Katalogoan sartu edo katalogotik kanpo utzi beharreko elementu edo multzo unitarioaren ondare balorazioari buruzko txosten-azterlanaren berri eman beharko zaio Udaleko Ondarearen Aholku Kontseiluari.

– Txostena eskatuko zaie Gipuzkoako Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan kultura ondarearen arloan eskumena duten sailei, eta, horiek katalogoan sartzeko baztertzuz gero, osagarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondarearen Kontseiluaren aldeko txostena ere beharko da, Euskal Kultura Ondareari buruzko 2019ko maiatzaren 29ko 6/2019 Legearen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. Udalak aldiari behin eguneratuko du Plan Berezi hau, aurreko 1. eta 2. ataletan aipatzen diren izapideen eta espedienteen, eraginpean dauden elementuak barnean hartzearen edo baztertzearen ondorioetarako.

**10. artikulua.** *Elementu eraiki baten katalogazioaren ondorioak.*

